

Goitik lerkaiaik xistuz  
etozan geiagotuz,  
dana kirats bete;  
eriotz egoan zut,  
zakarki joaz turut,  
su-ego gaiñ azke,  
ez pot, ez ats-arte,

Txima-naas, zoi gaiñean,  
odol-ziztil lurrean,  
apitxin egiña...  
Aurrez-aur guk itxia,  
or ire gorpuzkia,  
ene lagun miña.  
Aundi yat samiña!

Laster lez, bear bada,  
aitz-artetik urtenda,  
bas-iizi uzuak  
birrindu abe egingo;  
nik ditut somatuko  
orrein erpa-joak,  
orrein sistakoak.

Ta i, iñok eortzeka,  
irri-lagun ordeka,  
or atza betillun...  
Obi baten atseden  
nok iri, baiña, ukatzen?  
Ene intzira, kutun,  
eik itzalez artun.

### IRI NAGO

Iri nago, aberri, iri nago adi,  
len intzala betargi, gaur deadar andi.  
Zer zulo, zer eriotz egunok igurdi!  
Zur-egiñik,  
ero legez nagokik, illa baizen illik.

Atzo pozik,  
gaur lur jorik,  
llun'ek ez opa argirik.

Iri nago, aberri, bea zun ustuaz,  
odol-ibai egiña, olan oartuaz;  
lengoa ez akit, ez, poz-fedez, ez suaz.  
Etsai-aldrak  
gaiñez dozak etorri, ta or i ai-otsak,  
samin-jasak,  
erra latzak,  
lurreraturik zori txarrak.

Mendiko amilura bioa garrisiz,  
i izen bage, gerentsu, orrelan ikusiz,  
igana yoak nire didar-miña irrintziz.  
Laido zama  
—amabi ezteneko naigabe garrama—,  
or arrama,  
il-uzama  
kuzkur daroak ik, lur ama!

Gaurtik, abil iltzear, dindirriz josia,  
txitik jalgi eziñik, abil eratsia,  
lur-sail, enda ta adore bage, ta etsia.  
Baiña, ik bestek,  
jHerriko ixil-une naiz barne-samiñek,  
ez, ez yaustek,  
—noren senek?—  
b:otz-argia barriz itzuliko ezek.